



ÁREA DE IGUALDAD
BERDINTASUN ARLOA

Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
☎ 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

“Aranguren Ibarrean elkar zaintzen dugu” I. Argazki Lehiaketa

Aranguren Ibarreko Udalaren Berdintasun Arloa 2020 Oinarriak

Antolatzailea: Aranguren Ibarreko Udala (Berdintasun Arloa)

Parte-hartzaileak: Aranguren Ibarrean eroldaturiko jende orok izanen du parte hartzeko aukera. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki argitaragabe aurkezten ahalko ditu.

Adingabeek ere parte har dezakete, baina horretarako, gurasoen edo legezko tutorearen baimena aurkeztu beharko dute nahitaezkoa den dokumentazioarekin batera. Baimen horretan adingabearen parte-hartzea onartu behar dute, bai eta sariketaren oinarriak ere (II. eranskina).
Epaimahaikideek ez dute zilegi izanen lehiaketan lanik aurkeztea, ezta Berdintasun Arloari atxikitako langileek ere.

Helburuak: Herritarrak, oro har, eta gizonak, batez ere, zainketa lanen inguruan sensibilizatzea, zainketak ezinbestekoak baitira bizitza jasangarria izateko.

Erantzunkidetasuna sustatzea, dela zainketetan dela etxeko lanetan, bai eta kontziliazio erantzunkidea ere.

Emakumeen eta gizonen harreman erantzunkideak sustatzea gure bizitzan antolaketan.

Emakume zaintzaileen genero-estereotipoak eta rola ezabatzea.

Gizonen dei egitea zainketa lanetan aritu daitezzen eta beren bikotekideen lan profesionala baloratu dezaten.

Gaia: Erantzunkidetasunean oinarriturik egiten ditugun zainketa lanak erakusteko balio duten eguneroko bizitzako egoerak.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarriturik egiten diren zainketak.

Bizitzaren, familiaren eta lanaren kontziliazio erantzunkidea.

Erantzunkidetasuna etxeko lanetan eta zainketetan.

Kontzeptuak argitzen (Argazkiak pentsatzeko jarraibideak):

Zainketak: "Pertsonak behar dituzten premia guztiak beren bizitzaren jasangarritasuna eta erreprodukzioa bermatzeko, bai eta beren ongizate fisikoa eta emozionala ziurtatzeko ere" (Lina Gálvez Muñozen definizioa)

Bizitzaren jasangarritasuna: Bizitzaren prozesua ulertzea, beharrak kontuan hartuta, bai baliabide materialari buruzkoak, bai zainketa eta maitasuneko testuinguru eta harremanei buruzkoak. Bizitzaren jasangarritasun kontzeptuak bere baitan biltzen ditu hala enplegu ordainduaren esparrua nola etxeko lana eta zainketak, horiek orok bizitza jasangarria ahalbidetzen baitute.

Kontziliazioa: pertsonak beren bizitzako arloetan dituzten baliabideen eta denbora erabiltearen arteko oreka; bereziki, norberaren arloan, bai eta lan, lanbide eta familia arloetan ere.

Kontziliatzea erantzukizunak gizonen eta emakumeen artean elkar banatzea da, bai etxeko lanetan, bai mendekoen zainketan edota bestelakoetan.

» Kontziliatzea emakumeok eta gizonok ekoizpen, erreprodukzio eta norberaren espazioari eskaintzen diogun denbora berrantolatzea da.

» Hazkuntzari, mendekoak zaintzeari eta bizitzeko premiak moldatzeari eskaintzen zaien denbora gizonen eta emakumeen artean banatzea da Kontziliatzea.

» Kontziliatzea ekoizpen egiturak berrantolatzea da, betiere enplegatuen premiak eta familia-betebeharrak kontuan hartuta.

Erantzunkidetasuna: Emakumeek eta gizonak, bai eta gizarteak, enpresek eta politika publikoek ere, betebeharrak eta eginbeharretan duten erantzukizuna, bizitza bideragarria eta jasangarria izateko, ekitatearen eta justizia sozialaren ikuspegitik.

Genero-rolak: Bereko kultura baten barnean, sexu jakin bateko pertsonentzat sozialki egokitzat jotzen diren gizarte-arauak eta portaerak. Pertsona edo gizabanako jakin batek -emakume eta gizon izateaz- besteekiko daukan irudi publikoa da".

("ZAINKETEN KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA ERRAZTEKO NEURRIAK COVID-19ak NAFARROAN IRAUN BITARTEAN" Gida. Nafarroako Berdintasunerako Institutua. 2020ko ekaina).

Argazkien ezaugarri teknikoak:

-Argazkiak zuri-beltzean eta koloretan aurkez daitezke. Bakoitzak bere izenburua izan beharko du.

-Formatu digitala: .jpg. Tamaina, gehienez 3Mb

-Formatu inprimatua: Neurriak: 20x30 cm

-Lagun bakoitzak gehienez hiru argazki aurkeztuko ditu.

-Aurkezten diren argazkiak originalak eta argitaragabeak izanen dira, aurrez ezin lehiaketa edo sariketatan saritu gabeak, ezta beste edozein bidez ikusgai jarriak, argitaratuak eta hedatuak ere.

-Behin epaimahaia sariak erabakitzean, aurreko baldintzak betetzen ez badira, parte-hartzailea deskalifikaturik geldituko da zuzenean.

-Parte-hartzaileek bere gain hartuko dute hirugarrenen eskubiderik ez izatearen erantzukizun osoa, bai eta irudi eskubideengatik izan litekeen erreklamazio guztiak ere.

-Argazkiak egilea identifikatzeko moduko datu pertsonalik gabe aurkeztuko dira.

Argazkiak aurkezteko epea: 2020ko abuztuaren 3tik irailaren 30eko 12:00ak arte.

Aurkezteko modua:

Argazkiak honela aurkeztuko dira:



Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
☎ 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

ÁREA DE IGUALDAD BERDINTASUN ARLOA

- Bai posta elektronikoz:

Posta bat helbide honetara bidaliz: igualdad@aranguren.es

Postan, hau guztia erantsiko da: I. Eranskina (parte-hartzailearen datu pertsonalak biltzen ditu, bai eta lanen izenburuak ere).

Eta era berean, argazkiak erantsiko dira (kalitatea ona ez bada, huraxe hobetzeko eskatuko zaio egileari). Argazki bakoitzak bere izenburua izan beharko du. Eta beharrezkoa bada, II. eranskina gehituko da.

Era berean, zehaztu beharko da Familien Kategoriako sarira aurkeztzen ote den eta Aranguren Ibarrean erroldatua egotea.

Izenburua gaztelaniaz, euskaraz edota bi hizkuntzetan aurkeztzen ahalko da. Hizkuntza bakarrean aurkeztzen bada, Aranguren Ibarreko Udalak huraxe itzultzeko eskubidea izanen du.

Mezuaren gaien haxe adieraziko da: "Aranguren Ibarrean elkar zaintzen dugu".

Nahi izanez gero, izenburuari buruzko azalpen bat aurkeztzen halko da.

-Edota, bestela, ARANGUREN IBARREKO UDALAREN OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAREN ARLOKO erregistroan, Mutiloa plaza, z/g, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara.

Kasu horretan, argazki inprimatuak gutun-azal itxi batean aurkeztuko dira, haxe idatzita: "Aranguren Ibarrean elkar zaintzen dugu" argazki lehiaketa.

Gutun-azal horretan haxe sartuko da: argazkiak, haietako bakoitzean izenburua adierazita; eta beste gutun-azal baten barnean (kanpoaldean, aurkeztzen diren argazkien izenburua idatziko da) I. Eranskina, eta beharrezkoa bada, II. Eranskina.

Izenburua gaztelaniaz, euskaraz edota bi hizkuntzetan aurkeztzen ahalko da. Hizkuntza bakarrean aurkeztzen bada, Aranguren Ibarreko Udalak huraxe itzultzeko eskubidea izanen du.

Nahi izanez gero, izenburuari buruzko azalpen bat aurkeztzen ahalko da.

Argazkien kalitatea ona ez bada, huraxe hobetzeko eskatuko da, eta honela aurkeztuko dira: kalitatezko kopia bat argazki-paperean, zuri-beltzean edo koloretan. Argazki-formatuaren neurriak 20x30 cm izanen dira. Irudia tratatzeko edozein teknika eta prozedura onartzen da.

Era berean, lan guztiak argitaragabeak direlako nahiz den-denak egileak eginak direlako adierazpena jaso beharko da.

Argazki irabazleak webean, sare sozialetan eta gainerako udal espazioetan paratzen ahalko dira ikusgai.

Irabazleek 3 eguneko epea izanen dute jakinarazpen ofizialek aurrera argazki irabazleak bereizmen altuan igualdad@aranguren.es helbidera igortzeko. Gaietan, lanaren izenburua soilik jasoko da.

Argazkien erakusketa eta jabetza:

-Pertsona berberak ezin izanen du jaso sari bat baino gehiago.

-Sariak eman gabe gera daitezke, epaimahaiak halaxe erabakitzen badu.

-Argazki hautatuen eta irabazleen egileek erreprodukzio eskubideak lagako dituzte, lanak Aranguren Ibarreko Udalaren udal webean, sare sozialetan, udal buletinean eta gainerako udal espazioetan erakusteko, lehiaketaren hurrengo edizioa sustatze aldera.

-Udalerriko hainbat tokitan jarriko dira ikusgai, eta Berdintasun Arloarekin lotutako material grafikoak egiteko erabiltzen ahalko dira.

-Argazki horiek ez dira bestela erabiliko, egileek berariaz baimenik ematen ez badute. Udala argazki sarituen jabea izanen da eta haiei buruzko eskubide guztiak gordeko ditu. Aurkeztzen diren argazki guztiak jartzen ahalko dira ikusgai, ikusgaitasuna emateko, hurrengo deialdira bitarte.

Epaimahaia: Osakideak:

-Berdintasun zinegotzia

-Berdintasun arloko teknikaria

-Kultur arloko zinegotzia edo teknikaria

-Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Haurrak eta Familia programako teknikari bat

- Aranguren TV-ko irudi-profesional bat

Epaimahaiaren erabakia: 2020ko urriaren 9a. Erabakia apelaezina izanen da. Emaizta hedabideen bitartez emanen da aditzera. Sarituei telefonoz emanen zaie erabakiaren berri. Sarituek sari banaketarako ekitaldira bertaratzeko konpromisoa hartzen dute.

Balorazio irizpideak: Hona hemen lan aurkeztuak baloratzeko irizpideak. Balorazio osoa 10 puntu izanen da:

1.- Lanaren gaiak eta edukiak proposatutako gaiarekin duten lotura (5 puntu)

2.- Alderdi teknikoak: argazki-kalitatea, konposizioa (3 puntu)

3.- Originaltasuna eta sormena (2 puntu)

Sariak: Sari hauek ezarri dira, kategoriaren arabera:

Kategoria orokorra: 1. Saria argazki onenarentzat: 250€ argazki-materialean edo material teknologikoan

2. Gazte Saria: gazteek egindako argazkirik onenarentzat (30 urtera arte): 150 € argazki-materialean edo teknologikoan

Familien kategoria: Familiartearen egindako argazkiak. Saria: opari-kutxa bat, egonaldia familian. Asteburu bateko landa esperientzia familia guztiarentzat.

Sari modalitate horretan parte hartu ahal izateko, aipatu familiako kide guztiak agertu beharko dute argazkian eta modalitate horretan parte hartu nahi dela zehaztu beharko da I. Eranskinean.



ÁREA DE IGUALDAD BERDINTASUN ARLOA

Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
☎ 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sari bat jasotzen ahalko du. Bi saritarako proposatzen badute, diruz hornituena soilik emanen zaio, eta beste saria, berriz, beste lan bati emanen zaio.

Sari banaketa: 2020ko urriaren 29an egingen da, osteguna, 19:30ean, Kultur Etxean.

Oinarrien onarpena eta interpretazioa: Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartzea dakar berekin, bai eta lehiaketako epaimahaiak hartzen dituen erabakiak ere. Oinarrietan hitzartutakoa ez den guztia epaimahaiaren iritzipean geldituko da.

Aranguren Ibarreko Berdintasun Arloak ez du inolako erantzukizunik izanen, hirugarrenek lan aurkeztuak plagiatzen edo gaizki erabiltzen badituzte.

Parte-hartzaileek bere gain hartzen dute jabetza intelektualari eta norbere irudirako eskubideari buruz indarrean diren legezko xedapenen betekizuna, eta erantzukizunpeko adierazpena egingen dute lehiaketa honen baitako obraren hedapenak edo erreprodukzioak parte-hartzaileen eta hirugarrenen ezein eskubiderik ez duela urratuko eta kaltetuko bermatzeko.

Lanen egileek behar den baimena eman diete antolatzaileei argazkiak oinarrietan adierazitako lekuetan eta uneetan ikusgai jartzeko.

Datuen babesa:

Tratamenduaren arduraduna: Aranguren Ibarreko Udala dpd@aranguren.es

Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira eta, saritua gertatuz gero, harremanetan jartzeko, saria kudeatzeko eta lehiaketaren emaitza argitaratzeko. Argazkiak Udalaren bitarteko digitalen bidez zabalduko dira eta, era berean, inprimatuz eta euskarrietan paratuz, hala nola egutegi, erakusketa eta abarretan.

Legitimazioa: obra aurkezteagatik eta lehiaketan izen emateagatik emaniko baimena.

Kontserbazio epea: datuak xedea bete bitartean gordeko dira. Halaber, datuak gordeko dira Udalak tratamendutik eratorritako erantzukizunik izan dezakeen bitartean. Era berean, artxiboei eta dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legean ezarritako arauak bete behar dira.

Datuen hartzaileak: Irabazleen eta parte-hartzaileen datuak (irudia eta izen-abizena barne) deialdi honetan adierazitako bitartekoen bidez argitaratuko dira. Era berean, jakinaraziko dira, indarreko legerian ezarritakoa betetzeko; zerga arlokoa, bereziki.

Eskubideen erabilera: datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, mugatu, aurka egin eta eramateko eskubidea erabiltzen ahalko duzu, Aranguren Ibarreko Udalera joz. Jakinarazten dizugu, halaber, erreklamazio idatzia aurkezten ahalko duzula kontrol-agintari eskudunaren aitzinean, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean, helbide honetan: Jorge Juan kalea, 6, 28001 (Madril). Bestela, haren egoitza elektronikoaren bidez: agpd.es.

Norbere irudirako eskubidea:

Bere irudia edo hirugarrenen irudia dauzkaten argazkiak bidaltzen dituzten pertsonak (horretarako hirugarrenen baimena izan behar dute argazkia igortzeko) baimena ematen dute edo beren eskubideak laga dituzte Udalak irudi eskubideak erabil ditzan, honako eskubide hauek gauzatzeko, betiere:

- Egindako argazki-/bideoak euskarri orotan erreproduzitzeko eskubidea.
- Argazkiak argitaratu, jendaurrean erakutsi eta hirugarrenei lagatzeko eskubidea.

Adierazten dute, halaber, ez dagoela intromisio ilegítimorik beren intimitate eskubidean, eta berariaz uko egiten diote beren eskubide moralen ordainsari eta kalte-ordain orori.

14 urtetik beherakoen irudiak badira, gurasoek edo tutoreek bidali beharko dituzte.



ÁREA DE IGUALDAD
BERDINTASUN ARLOA

Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
☎ 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

(I. ERANSKINA)

PARTE HARTZEKO GALDETEGIA
“Aranguren Ibarrean elkar zaintzen dugu” Argazki Lehiaketa

ABIZENAK ETA IZENAK	
SEXUA	
ADINA	
NAN/AIZ/PASAPORTE ZK.	
ARANGUREN IBARREAN ERROLDATUA (BAI - EZ)	
HARREMAN TELEFONOA	
POSTA ELEKTRONIKOA	
FAMILIEN KATEGORIAKO SARIAN AURKEZTU NAHI DUT (BAI-EZ)	
LANEN IZENBURUAK	1. ARGAZKIA
	2. ARGAZKIA
	3. ARGAZKIA



ÁREA DE IGUALDAD
BERDINTASUN ARLOA

Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
☎ 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

KATEGORIA HONETARA AURKEZTEN NAIZ

	1. ARGAZKIA	2. ARGAZKIA	3. ARGAZKIA
Kategoria orokorra: 1. Saria argazki onenarentzat			
Kategoria orokorra: 2. Saria, tokikoa			
Kategoria orokorra: 2. Gazte saria			
Familien kategoria			

- ✓ Adierazten dut lana edo lanak erabat direla argitaragabeak, eta egileak onduak direla bere osoan.
- ✓ Badut pertsona titularren baimena edota gurasoenena -14 urtetik beherako kasuetan-, lehiaketan aurkeztu ditudan argazkietan ageri diren pertsonen irudiak erabiltzeko, eta lehiaketaren oinarrien berri eman diet.

.....(e)an, 2020koaren(e)an.

Sin.

Datuen Babesa, informazioa:

Arduraduna: Aranguren Ibarreko Udala

Xedea: Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira eta, saritua gertatuz gero, harremanetan jartzeko, saria kudeatzeko eta lehiaketaren emaitza argitaratzeko.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta gainerako eskubideak ere, toki entitatera joz.

Informazio gehigarria: argibideak lehiaketaren oinarrietan dituzu.



**ÁREA DE IGUALDAD
BERDINTASUN ARLOA**

Plaza Mutiloa, s/n - 1ª planta
Mutiloa plaza, z/g - 1. solairua
☎ 948 15 13 82
☎ 948 24 34 91
31192 MUTILVA / MUTILOA
NAVARRA/ NAFARROA
www.aranguren.es

(III. ERANSKINA) BAIMENA

Izena:, aita/ama edo tutorea
naizen aldetik, NAN:, baimena ematen diot
....., “Aranguren Ibarrean elkar zaintzen dugu” Argazki Lehiaketan
parte hartzeko, Aranguren Ibarreko Udalaren Berdintasun Arloak antolatua.

.....(e)an, 2020koaren(e)an.

Sin.

Datuen Babesa, informazioa:

Arduraduna: Aranguren Ibarreko Udala

Xedea: Datuak lehiaketa kudeatzeko erabiliko dira eta, saritua gertatuz gero, harremanetan jartzeko, saria kudeatzeko eta lehiaketaren emaitza argitaratzeko.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta gainerako eskubideak ere, toki entitatera joz.

Informazio gehigarria: argibideak lehiaketaren oinarrietan dituzu